



TREBAKUNTZA 2021-02: BERANDUAGO/GEROAGO

Gaztelaniazko “tarde” hitzak bi adiera ditu: berandu eta gero. Beharbada, buruan konturatu barik erdara darabilgulako, nahasi egiten ditugu biak.

Hona hemen behin baino gehiagotan ikusi izan ditugun akatsak.

OHARRA: *asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.*

OHIKO AKATSAK

- 1 *Gai hori **beranduago** aztertuko dute teknikariek.
2. ***Beranduago** jakingo dugu alkatearen erabakiaren berri.
3. *Osasunaren lehen gola hamabi minutu **beranduago** etorri zen.
4. *Bonbardaketak guztiz suntsitu zuen Gernika, baina hemen ez da igartzen, irudiok 50 urte **beranduago** hartutakoak dira eta.
5. Gaur ez dut zabalik topatu denda, eta bihar **geroago** joango naiz.

AZALPENA

Gero: beste zerbaiten ondoren adierazten du, puntualitatearekin edo garaiz ibiltzearekin inolako zerikusirik gabe, hau da, segida kronologiko hutsa adierazten du. Erabil liteke geroago; esaterako, demagun batek esan duela Kolon 1475ean heldu zela Ameriketara; orduan, hauxe erantzun beharko:

OKER: **Ez horixe! Askoz beranduago heldu zen: 1492an, hain zuzen ere.*

ZUZEN: *Ez horixe! Askoz geroago heldu zen: 1492an, hain zuzen ere.*

Berandu: atzerapena adierazten du; hau da, behar den ordua edo sasoiaren ondoren, eta goiz edo sasoz hitzen kontrakoa.

Jon berandu heldu da: bilera zazpitan zen arren, zortzietan heldu da.

Beranduago erabiltzen da normalean lehenago berandu bat erabili izan denean. Esaterako, demagun bilera bat seietan genuela, baina Jon sei eta erdietan heldu dela, eta Miren, ordea, zazpitan; hortaz:

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.eus

Jon berandu heldu da eta Miren beranduago.

Batzuetan, «geroago» sartzen dugu «beranduago»-ren lekuan:

OKER: * *Gaur ez dut zabalik topatu denda, eta bihar geroago joango naiz.*

ZUZEN: *Gaur ez dut zabalik topatu denda, eta bihar beranduago joango naiz.*

Gogoratu «lehen» / «gero» eta «goiz» / «berandu» direla aurkaritzak. Esaldi hori ezezkoan ipinita, «Bihar ez naiz hain goiz joango» esango genuke. Baiezkoan, beraz, «berandu(txo)ago» behar du izan.

ZUZENKETAK

1. Ad. Gai hori geroago aztertuko dute teknikariek.
2. Ad. Geroago jakingo dugu alkatearen erabakiaren berri.
3. Ad. Osasunaren lehen gola hamabi minutu geroago etorri zen.
4. Ad. Bonbardaketak guztiz suntsitu zuen Gernika, baina hemen ez da igartzen, irudiok 50 urte geroago hartutakoak dira eta.
5. Ad. Gaur ez dut zabalik topatu denda, eta bihar beranduago joango naiz.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699